



Basque Writing 18

Gatazka politikoa eta Literatura

**STRUGGLE
CHANGES
EVERYTHING.**

Literatura garaiaren alaba baldin bada, ezein gatazka politikok eragina izango du fikzioaren produkzioan. Eragina du literatura ekoizteko eta hedatzeko orduan, eta eragina du tematikan, gatazka politikoak gordin islatzen baitira lan literarioetan.

Aldizkari honetan jaso diren artikuluetan ikusiko dugu Euskal Herrian izan diren gatazka politikoek bi motatako eraginak izan dituztela azken mendeko euskal literaturgintzan. 1936ko gerrak "euskal letren erbesteratzea ekarri zuelako, bai literala, bai sinbolikoa", Amaia Serranok *Euskal eleberria 36ko Gerarri begira* izeneko artikulua adierazi bezala.

Ibon Egañaren *Letren gatazkan* artikulua azpimarratu du, ordea, 1990eko hamakadatik aurrera (bereziki 2000 urteetatik hona) ugariak direla gatazka politiko eta armatua hizpide hartuta argitara eman diren lanak. Eta "2011n ETAK bere jarduera armatua behin betiko amaitzeko erabakia hartu izanak "frankismo osteko 30 urtetako indarkeria politikoaren inguruko errelatu edo kontakizunaren auzia bihurtu da eztabaidagai".

Izaro Arroitz egile baten bidetik heldu dio gaiari *Gatazka politikoak Ramon Saizarbitoriaren nobeletan* artikuluan. Idazle saritu eta kanonizatua, "aitzindari izan da, ez modernitatea euskal literaturara ekarri zuelako bakarrik;

baita ere euskal gatazka kontaketa heldu ziolako, eta memoriaren ardura lehen planora ekarri zuelako ere".

Literatura eta gatazka politikoa artikuluan Gorka Mercero orriotara ekarri du "Patria" nobela, Fernando Aramburuk idatzia eta gatazka politikoa hizpide duena. Mercero azaltzen du nobela honek betetzen duen funtzio nagusia dela "Espainiak euskal herritarrekin daukan gatazka politikoa ukatzea, Espainiak Euskal Herrian homologo bat daukan ukatzea, alegia" eta, halaxe irabazi nahi du *kontakizunaren borroka*.

Azkenik, Aritz Gorrotxategik *Ondorioen garrantzia* artikuluan agerian utzi nahi izan du, nobela batzuk aintzat hartuta, zein sakonak diren gizarte batean uzten dituen zauriak, eta amaitzen du esanez "gure ardura da isiltasuna eta ahanztura ez nagusitzea, gure kontakizunaren koska guztiak argipean jartzea. Gaizki eginaren salaketa sukaldara ez mugatzea. Hildakoei zein biktimei gizatasuna ematea. Hor dago etorkizuneko literaturaren erronka".



Laura Mintegi
Basque PEN



Euskal Eleberria

36ko Gerrari begira

Sarrera

Euskal literaturaren garapena 36ko Gerrak guztiz baldintzatu zuela esatea ez da berria. Orduan hasitako debekuek, zentsurak eta jazarpenak euskal kultura osoari eragin zioten, eta euskal letren erbesteratzea ekarri zuten, bai literala, bai sinbolikoa. Hortaz, ez da harrizkoa 36ko Gerrak euskal literaturan (bereziki eleberrigintzan) presentzia handia eduki izana, ezen gertaera traumatikoekin gertatu ohi bezala, isilune luze bati erantzuteko espazio bihurtu baita fikzioa; are gehiago ahozko lekukotasunak itzaliz doazen garaian.

1937ko Txomin Arrutiren **Loretxo** (1937) lanetik gaur egunera bitarte, hainbat idazlek agertu dute 36ko Gerra fikzio bihurtzeko interesa, bakoitzak bere tradizio literario eta asmo estetikitik, ohitura eleberriak (1937-1957), eleberri esperimentalak (1979-1984) eta eleberri errealistak (1989-1999) sortuz.

Idazte eta argitaratze garaiak baldintzatu-tako eleberriak dira guztiak, eta ibilbide historiko-literario horretan euskal literatur sistema bera egonkortu den bezala, gerraren beraren oroitzapenak eta euskal naziotasunaren auziak bilakaera jakin bat izan du. Ondorioz, eleberri horietako gerra-irudikapenak garaiko testuinguruaren arabera interpretatu behar dira.

Gerrari buruzko lehen eleberritik 1999ra bitartean argitaratutako lanak asko izan dira, baina 2000. urtetik aurrera kopuru hori nabarmen hazten da, neurri handi batean espainiar estatuan

memoriaren inguruko eztabaida publikoak eta foroak ugaritu zirelako, eta erabaki politiko eta juridikoak hartu zirelako.



Robert Capa, Espainiako 1936ko Gerra

Eleberri memorialisten aniztasuna

Emilio Silva kazetariak 2000. urtean bere aitonaoren gorpua aurkitu eta lurpetik ateraz

geroztik, 36ko Gerraren memoria

plazara zabaltzen hasten da. Ekintza horren erantzun mediatikoak oihartzun handia izan zuen gizartean eta erakunde publikoetan, eta orobat euskal eleberrietan. Garai hartan argia ikusi zuten obren artean daude honako hauek: Juan Luis Zabalaren **Agur, Euzkadi** (2000), Lutxo Egiaren **Paperezko hegazkinak** (2002), Bernardo Atxagaren **Soinujolearen semea** (2003), Jokin Muñozen **Antzararen bidea** (2007), Xabier Montoiaren **Golgota** (2008), Iñaki Irasizabalen **Gu bezalako heroiak** (2009), Uxue Alberdiren **Aulki jokoak** (2009) eta Jose Inazio Basterretxearen **Azken tranbiaren itzala** (2011).

Eleberri horiek, gainera, bi berrikuntza nagusi dakartzate: alde batetik, euskal gatazkaren eta gerraren arteko paralelismoak planteatzea (dela bien arteko ispilu jokoak huts egiten duela erakusteko, dela bi garaien



arteko lotura historikoak azpimarratzeko), eta, bestetik, gerra bizi izan ez duen hirugarren belau-naldiko pertsonaiak azaltzea, arrazoi etikoak mugituta garai hartako gairen bat argitu nahian.

Ez dira ahaztu behar, halaber, Haur eta Gazte Literaturak 36ko Gerrari buruzko euskal eleberrigintzari egindako ekarpenak: gerra haur baten ahots eta begiradapetik eraikitzen da Joseba Sarrionandiaren *Kolosala izango da* (2003) nobelan, eta Miren Agur Meabek, gerra literatur gaitzat hartutako lehen emakume idazleak, irakurle gazteak gogoan hartuz idatzi zuen *Urtebete itsasargian* (2006).

Haur eta gazte zein helduentzako lan literario horietan, pertsonaia nagusiek kontatzeko behar larria sentitzen dute, eta barne-hustuketak haien nortasuna eta historia ulertzen laguntzen du, gainerako pertsonaiek haietaz dituzten aurreiritziak eraisteraino. Hala, egia poetikoaren bidez egia historikoaren beharra azpimarratu nahi da, iraganaren ezagutzak orainaldia epaitzeko baliabideak emango dizkigulakoan. Era berean, traumak askatzeko bide bihurtzen da kontaketa narratzaile-protagonistentzat, nahiz eta barne-hustuketa horretan haien istorioa irakurlearengana soilik iristen den, lekukotza intimoek ez baitute gainerako pertsonaienganako biderik egiten.



Bestalde, emakumezko narratzaileak ageri dira lehen aldiz, eta horrek ahalbidetzen du haiek jasan dako indarkeriaren aitoren literarioak beren ahotsetik ezagutzea, zeren eta 36ko Gerran jasan zuten bortxaketa, makurkeria eta jazarpena ikusgarri egiten baitute. Azken ezaugarri horrek, gainera, agerian uzten du ordura arte pertsonaia nagusi gehienak eta

narratzaile guztiak gizonezkoen ahotsa izan dutela, alegia, gerra maskulinitatearekin lotua izan dela.

ETA-osteko begirada berritua

Prozesu historiko konplexu eta gorabeheratsuen ondoren, euskal naziotasunari buruzko gatazka politikoan ETAk borroka armatua uzteko erabakia hartu zuen 2011n. Hautu horrek gizartean eta kulturaren eragina izan zuen, eta idazleek neurri handi batean euskal gatazkari buruzko narrazio literarioak sortzen jarraitu badute ere, ez dira gutxi izan berriro ere gerrara jo dutenak: Josu Penadesen *Ileak uretan* (2012), Kirmen Uriberen *Mussche* (2012), Garazi Goiaren *Txartel bat (des)herrira* (2013), Garbiñe Ubedaren *Hobe isilik* (2013) eta Luis Garderen *Ehiztariaren isilaldia* (2015).

2011tik aurrerako eleberri horietan gerrari begiratzeko modu berriak nabari dira: memoria kolektiboak garrantzia galtzen du, eta gerrak pertsonaiari ekarritako barne gatazkan oinarritzen da narrazioa; jatorri ezberdineko arazoak konparatzen dira (sozialak, politikoak, pertsonalak, etab.); gerrari buruzko literaturan presentzia txikiagoa izan duten taldeengan jartzen da arreta (gerrako haurrengan, esaterako), etab. Ez dateke halabeharra, gainera, aldaketa horiek ETaren erabakiaren ostean etorri izana, ez eta bost ekarpen horietako bi emakumezko idazleek eginak izatea ere.

Azken hitzak

36ko Gerrak presentzia handia izan du euskal eleberrietan, eta horietako askok sariak jaso dituzte, kritika onak izan dituzte eta irakurleen harrera ona izan dute. Horrenbestez, esan liteke literaturak balio izan duela politikoki eta sozialki gerrari eman zaion erantzuna osatzeko, adierazpen artistiko honek, historiografiak ez bezala, irakurlearengana heldu eta enpatizatzen, hausnarrarazteko eta galdera berriak sortzeko gaitasuna duelako.



Amaia Serrano Mariezkurrena
Irakaslea



LETRAK GATAZKAN

Heldu ote dio euskarazko literaturak gatazka eta indarkeria politikoaren auziari? 2018an ez dirudi galderak ezezkorik onartzen duenik, asmo ideologiko jakin batetik ez bada, izan ere, 1990eko hamarkadatik aurrera eta bereziki 2000ko urteetatik hona atertu gabe eman baitira argitara gatazka politiko eta armatua hizpide duten literatur lanak. Era berean, ugalduz joan dira auziaren inguruko ikerketa eta irakurketa kritikoak ere, akaso, eztabaida polemikaren esparrutik harantzago heldu den seinale.

Argitaratu ez ezik, azken urteetan instituzio literarioek aintzat hartu, saritu eta kanonizatu ere egin dituzte gatazka hizpide duten eleberrri eta ipuin-liburuak (Jokin Muñoz, Ramon Saizarbitoria eta Harkaitz Canoren lanak, besteren artean), eta indarberritu egin dira 1990eko hamarkadan finkatutako euskal narratiba kanonikoaren habeak; hots, nazioaren irudikapen errealista maskulinoak jarraitzen du euskal literaturaren erdigunean eta gatazkaren inguruko narrazioa da irudikapen nazional horretarako birtarteko usuen, alegoriak edo iruditeria fantastikoez behiala izandako lekua betez.

Gatazkari heldu dioten liburuak ugaltzean izan du, jakina, eraginik 2011an ETak bere jarduera armatua behin betiko amaitzeko erabakia hartu izanak. Erabakiak zabalduz aro berriak, gainera, gatazkari buruzko literaturaren harreran eta jendarteratzean ere arrastorik utzi duela ezin ukatuzkoa da. Bestek beste, borroka armatua amaitu ostean frankismo osteko 30 urte-tako indarkeria politikoaren inguruko errelatu edo kontakizunaren auzia bihurtu da eragile politikoen artean eztabaidagai eta diskurtsoaren esparrura lerratu da lehia politikoaren parte bat. Historia narratibotzat hartzeak fikzioa eta errealtatea elkarrengana hurbilazati ditu ezinbestean.

Mendebaldeko kultura azken hamarkadetan izan den joeratik ez oso urrun, gatazkaren inguruko euskal nobelagintzan 2000ko hamarkadatik aurrera fokua ekin-tzailearenetik biktimearena aldatzen joan dela dirudi, salbuespenak badiren arren. Indarkeria politikoaren ondorioak zentzu zabalean jasaten dituzten pertsonaiak dira maiz euskal nobeletako protagonistak. Eleberrri horiek irudikatutako biktimak, gainera, ez dira indarkeriaren bik-tima zuzenak sarri, ezpada indarkeria-ekintza horien lekukoak, biktimen senideak, biolentziaren zipriztinak jasotzen dituztenak. Anjel Lertxundiren *Zorion perfektua* edo Jokin Muñozen *Antzararen bidea* izan daitezke horren erakusgarri. Estatuaren eta talde parapolizialen biktimei jarri die arreta nobelagintzak batzuetan (Harkaitz Canoren *Twist*-ek, kasu);



Ibon Egaña Etxeberria
Idazlea



ETAren indarkeriak eragindako sufrimendua adierazterakoan, aldiz, soziologikoki irakurle euskaldunarengandik hurbilago leudekeen biktimetan jarri du arreta euskal literaturak (hildako komando-kideetan, esaterako), haiekiko enpatiaz ETAren indarkeriak euskaldunei dakarkien kaltea adierazi nahirik. Haatik, ETAren indarkeriak eragindako bestelako biktimek, euskal irakurleen soziologiatik urrunagokoez, maiz bigarren mailako pertsonaien lekua dute eta sarritan, biktima izan diren etakideen erruduntasuna irudikatuzko funtzioa dute. Nolanahi ere, ETAren osteko garaian, kontsentsua lortu nahi duen literatura euskaldunak ETAren zein Estatuaren biktimak irudikatzea ezinbesteko duela pentsatzeko arrazoiak badira azken urteetako narratiba irakurritz gero.

Gatazka politikoaren eta indarkeriaren irudikapenak familia barruko gatazken forma hartu du azken urteotako nobela ugaritan. Alde batetik, fokua esfera publikoan jarri ordez eremu pribatura daramate horrela eleberriek, indarkeriak familia barruko esparru intimo eta pribatua nola mikazten, garrazten duen irudikatuzko; baina, bestetik, familia barruko harremanen kontakizunak badu dimentsio politiko argia ere, horren bidez gatazka politikoaren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa hartu dute eta nobelok hizpide. Zehatzago esanda, batzuetan Gerra Zibiletik, bestetan frankismotik edo 1980ko hamarkadatik aitarengandik jasotako herentzia politikoaren transmisioa (ETAren indarkeriaren forma hartzen duena) eten egiten da **Bernardo Atxaga** edo **Ramon Saizarbitoriaren** nobeletan, besteak beste.

Jasotako herentzia ideologikoari eta iragan traumatikoari ihes egitea hainbat nobelatan desio gisa ageri den ideia da, hortaz, eta akaso horregatik jo dute euskal eleberrigileek sarritan beren pertsonaiak atzerrira bidaltzera, horrekin iragan traumatikoa atzean uzterik balego bezala. Nolanahi ere, euskal nobelagintzak naziotik ihes egitea eta herentziari uko egitea desio gisa adierazten badu ere, hein batean eten hori fantasia dela ere kontziente da, eta badira aitaren herentziari ihes egin ezina espresatzen duten kontakizunak ere. Herentzia patriarkala atzean utzi eta subjektu berriak sortzerik bat ote ote dagoen, horixe da beste hainbat eleberririk azken urteotan plazaratu duten galdera, emakume gazteek protagonizatutako eleberrietan bereziki (Katixa Agirreren *Atertu arte itxaron* edo Uxue Apaolazaren *Mea culpa*, horren lekuko).

“Gure” mina islatzera jo du nagusiki euskal nobelak azken urteetan, halakorik esaterik baldin badago. Euskal irakurlearengandik hurbileko biktima askotarikoak protagonista dituen literatura da azken hamarkadetakoa, gatazkaren erdigunean kokatu ez arren jasotako herentziatik askatu eta ihes egin nahi lukeena, baina nola egin asmatu ezin eta ihes hori fantasia gisa bizi duena.



Gatazka Politikoak

Ramon Saizabitoriaren

nobeletan

Eztabaida ugari sortu izan du Euskal Herriko errealtate historiko politiko gatazka-tsuaren errepresentazioak idazle eta kritikarien artean; euskal literaturak gure gatazken kontaktari behar bezala, behar adina heldu ote dion izan dute, besteak beste, eztabaidagai. Esan izan da Frankismo osteko lehen urteetan, euskal literaturak ez ziola garaiko errealtate gatazka-tsuari bertatik bertara begiratu, ikuspegi errealista batetik. Testuinguru politikoaren gordintasuna aipatu izan da horren kausa gisa; baina baita euskararen eta euskal literaturaren garatze prozesua bera ere. 1990eko hamarkadatik aurrera, berri, errealmoranzko bira orokor bat ikusi dute kritikariek, Euskal Herriko errealtate historiko politikoaz idazteko joera orokor bat, oro har euskal literaturaren eklektikotasuna nabarmendu den arren.

‘Euskal gatazka’ deitzen dugun horri buruzko lanen artean, Ramon Saizarbitoriaren **100 metro** (1976) aipatu izan da maiz aitzindari gisa. Saizarbitoriaren nobelagintzan hasieratik nabarmentzen da errealtate soziopolitiko gatazka-tsuarekiko kezka, eta **100 metro**tik **Lili eta biokera** (2015), etengabe agertzen diren gaiak dira Gerra Zibila, Frankismoa eta euskal gatazka. Esanenezake Saizarbitoria aitzindari izan dela, ez modernitatea euskal literatu-

rara ekarri zuelako bakarrik; baita euskal gatazka-tsuaren kontaktari heldu ziolako eta memoriarekiko ardura lehen planora ekarri zuelako ere. Noski, aldatuz joan da errealtate gatazka-tsu horiek fikzioan irudikatze modua, nobela batetik bestera. Ildo horretan, gatazka-tsuaren errepresentazioan bere nobelek izan duten bilakaerari buruzko hausnarketa orokor bat eskainiko dugu artikuluko labur honetan.




Hasteko, kontuan izan behar da zabalduz joan dela Saizarbitoriaren nobeletan irudikatzen den errealtate historiko politiko gatazka-tsuarekiko distantzia edo denboratartea. **100 metro**, halako berehalakotasun bat antzematen da Frankismo amaierako errepresioa eta euskal gizartearen jarrera islatzeko orduan. Indarkeriak, za-

palkuntzak eta gatazka-tsu markatzen dute narrazioaren orainaldia, etakide baten azken ehun metroak kontaktatzen baitira, poliziarengandik ihesi, Donostiako Konstituzio plazan tirokatuta hil arte.

Ihesaldi horretan, bereziki esanguratsua dira protagonistari gogora datozkion oroitzapen indibidualak, bere haurtzaroarekin eta gaztaroarekin zerikusia dutenak; familiarekin eta, oro har, bere bizitzako alderdi pertsonal eta afektibo garrantzitsuekin. Heriotzaren aurrean, iraganera jotzen du iheslariaren gogoak, eta oroitzapen horiek dira, hain zuzen ere, bere nortasuna adierazten dutenak: galtzera ohiturik dagoen pertsonaia irudikatzen da, eta humanizatu egiten da iheslaria.

Ez da, ordea, militantearen ikuspegia bakarrik adierazten. Aitzitik, polifonia eta ikuspegi aniztasuna nabarmentzen dira **100 metro** plano eta ahots ezberdinen arteko kontrastearen bidez. Aurrez aurre agertzen dira, esaterako, Frankismoko zapalkuntza politiko kulturala adierazten duen eskolako haurrari buruzko kontakizuna, diskurtso frankista ofiziala testuratzten duten hedabideetako albiste pasarteak, edota herritar anonimoen elkarrizketa banal eta hitz aspertuak, besteak beste, militantearen heriotzaz. Polifonia horrek Frankismo amaierako euskal gizartearen konplexutasuna iradokitzen du; herriaren zapalkuntza, militantearen alferrikako sakrifizioa eta herritar gehien axolagabekeria.



Frankismo amaierako euskal gizartearen argazki bat eskaintzen du, aldeak alde, **Hamaika Pausok** (1995) ere. Frankismoko azken bost fusilamenduetako baten kontakizun fikziotua txertatzen da nobelan. Izan ere, Iñaki Abaitua protagonista idazleak **Hamaika Pauso** idazten du, Daniel Zabalegiren fusilatzeari buruzko nobela homonimoa; eta, jakina denez, Angel Otaegi etakidearen *alter egoa* da Zabalegi.

Kasu honetan ere, fusilatu aurretik Zabalegiri gogora datozkion oroitzapenen bidez txikitatik galtzera ohi-turik dagoen protagonista irudikatzen da; bizitzan suerte handirik izan ez duen arren, bere patua onartzen ikasi duen gizona da. Funtsean, **100 metron zein Hamaika pauson**, heriotzaren aurreko memoria indibidual horien bidez, alferrik hiltzera doan gazte baten heriotza ikaragarri eta absurdua kontaktzen dela ondoriozta genezake.

100 metrotik Hamaika pausora, islatzaileagoa, *auto-erreferentzialagoa* bihurtzen da kontaketa, hainbat baliabide metanarratibo erabiltzeko bidea ematen duten protagonista idazlearen eta nobela barruko nobela homonimoaren bidez. Protagonisten Frankismo amaierako bizipenak dira literatura gai,

baina baita memoria bera eta idazketa ere, eta memoriaren funtzionamendua imitatuaz egiten du aurrera narrazioak, egitura eta denbora hautsi batez eta motiboen errepikapenez baliatuz.

Bi eleberrri horien ondoan, Saizarbitoriaren hurrengo nobelak, **Bihotz bik** (1996) atzerago jotzen du denboran, eta urrunagokoa da irudikatzen den errealtate gatazkatsua: Gerra Zibileko memoriaren eta herentzia abertzalearen belaunaldi-arteke transmisioa bihurtzen dira ardatz **Bihotz bin** eta ondorengo nobeletan. Interesgarria da, baina, ohartzea narrazioak gerra garaian kokatu beharrean, gaur egungo plano batetik atzera eginda berreskuratzen direla memoria horiek. Ildo horretan, balirudike literatura gunee emankorragoa dela, gerrako gertakariak irudikatze baina, bizipen haiek eta bere ondorioak alderdi afektibo edo gizatiar batetik esploratzeko, literaturak sakondu egin dezakeelako lekukoek transmititu nahi ez dituzten eta historiografiak transmititu ezin dituen xehetasunetan.



Izaro Arroita Azkarate
Irakaslea


Literatura eta Gatazka Politikoa

Dena da interpretazioa. Ez daukagu errealtateari heltzerik interpretazioen bidez baizik. Eta interpretaziook ugariak izateaz gain, kontrajarriak ere izan ohi dira, are gatazkatsuak. Interpretazio kontrajarrien arteko gatazka da, azken batean, Euskal Herriaren izaera politikoaren inguruan ere aspaldi bizi duguna. Baina interpretazio guztiek ez dute berdin balio: batzuk besteak baino hurbilago daude egia, justizia eta demokraziatik, hain segur eskuraezinak baina aldi berean hain beharrezkoak zaizkigun ideal horietatik, alegia.

Euskal Herriaren gaineko gatazka politikoak gatazka nazionala izaten jarraitzen du nagusiki. Alde batetik, Espainiako estatua eta bere erakundeak daude, Euskal Herriari nazio-izaera ukatuz; bestetik, euskal *nazionalismoa* dago, nazio-izaera hori aldarrikatuz eta, ondorioz, eskubide politiko burujabeak eskuratu nahiz. Delako *patriotismo konstituzionalista* espainiarrak ukatu egiten ditu eskubideok. Horrek inposizio eta injustizia sentimenduak sustraitzen ditu ehun milaka euskal herritarron gogoan, populazio batek naziotzat

hartua izan dadin behar dituen elementu berezi *guztien* jabe sentitzen baikara: hizkuntza, historia, erakundeak, ondarea, ohiturak, balioak, folklorea... Eta irauteko nahia. Hori guztia ukatzen du Espainiak *fait accompli* logika bati jarraituz: orain arte euskal naziorik izan ez bada, hemendik aurrera ere ez da izango. Logika horretan logikarik eza besterik ezin dugu ikusi euskal herritar askok eta askok. Horra, beraz, gatazka.

Gatazka bera ere ukatu egiten du Espainiak. Jarrera logikoa, gatazka errekonozitzeak homologo politiko bat errekonozitzea ekarriko bailuke berekin, euskal nazioa, alegia. Espainiak ukatu egiten du Euskal Herriari 1936ko Gerra nazioen arteko gerra izan zenik, euskal herritar askok egun ere uste duten arren eusko gudariak oroz gain euskal nazioa aldeztu zutela espainiar nagusikeriaren aurrean. Diktadurari dagokionez, Espainiak gaitzetsi egiten du ETAK frankismoaren aurrean armak hartu izana, azpimarra ETAre indarkerian jarri errepresio frankistak helburu zuen asimilazio kultural mononazionalari ezikusia egiten dion bitartean.



Literatura eta Gatazka Politikoa (jarraipena)

Frankismo ondoko ETArri dagokionez, Espainiak arbuia egin du ETAK ekinean jarraitu izana, euskal herritar gehien-gehienok arbuia dugun bezalaxe, bide batez esanda. Baina euskal herritar gehien-gehienok lehenago edo geroago ETAREN eragabekeriak jabetzera heldu bagara ere, ez dugu honako ustea bazter utzi, alegia, okerreko bideak gorabehera, ETA gatazka politiko batek akuilatuta aritu izan dela. Espainiak, ordea, Francoren ondoko ETA satanizatu egin du gatazka politikoaren errealitatea terrorismoaren aurkako diskurtso monolitikoaren azpian isilarazita.

Euskal nazioa ukatu nahi duten zenbaitek literaturaren esparruraino ere eraman dute beren gurutzada eta euskaraz idazten duten egileek akusazio kolektibo gogorak jaso izan dituzte. ETAREN satanizazioarekin batera azken hamabost bat urteotan Espainian hedatu den ETAREN biktimak babesteko diskurtso sendo bezain beharrezkoaren harira, euskarazko idazleei ere aurpegiratu izan zaie biktimez batere ez arduratua, eta, hori eta horrenbestez, haien betebeharrak moral eta politiko ustez nagusiari uko egin. Egia da ETAREN gaineko euskarazko literaturan biktimarioak biktimak baino askoz gehiago erretratatu izan direla, baina irmoki ukatu behar dira arestian aipatu immoralitate akusazio oro. Izan ere, euskarazko literaturak biktimarioak paperera ekarri eta oroz gain indarkeria politikoaren desegokitasuna azpimarratu nahi izan dio euskal gizarteari. Aipatu akusazioak errefusatu, euskarazko literaturari, hain zuzen, kontrako eragina aitortu beharko litzaioke, alegia, ETAK desagertzera jarraitu duen prozesu autokritiko eta alde-bakarrekoa indarkeria politikoaren aurreko jarrera irmo eta arduratsu batekin elikatu izana. Euskal gizartea aspaldi ari zitzaion ETARI gelditzeko eskatzen. Baita euskarazko literatura ere.


Baina nazionalismo espainiarrak ez du erraz etsitzen. Azken boladan, idazle *basko* ez-euskaldun baten nobela hartu du zutoihaltzat erasoaldi berriari lotuta, Fernando Arambururen **Patria** (2016), alegia. Nobelaren harira esana du egileak *terrorismoaren azpiratze literarioa* burutu nahi izan duela. Hemen seinatu berri dudanez, ordea, ez da euskarazko literaturan egon indarkeria politikoaren aldeko asmo apologetiko nabarmenik. Bestalde, espainiar *patriota* askoren ustez Arambururen nobelak *kontakizunaren borroka* delakoa irabazi du, hots, **Patria** suertatu da behingoz ETA zer izan den egiatan kontatu duena, baita ETA zuzen nola gogoratu behar dugun erakutsi diguna ere. Nire ustez, ordea, **Patriak** betetzen duen funtzio nagusia, indarkeriaren aurkako diskurtso moral eztabaidaezina ustez erdietsi izanaren gainetik, Espainiak euskal herritarrekin daukan gatazka politikoa


ukatzea da, Espainiak Euskal Herrian homologo bat daukan ukatzea, alegia. Nobelaren osagai batzuk oso nabarmen daude jarrita helburu hori erdieste aldera. ETA sostengatzen duten pertsonaiek, kasu, giza doilorkeria mota oro biltzen dute beren baitan: burugabeak dira, basatiak, krudelak, klasistak, arrazistak, homofoboak... Indarkeria besarkatu dute; ez, ordea, arrazoi politikoak leudekeelako, munstro hutsak direlako baizik. Bestalde, narrazioak askotan etakideen kontzientzia gaiztoa fokuratzeko badu ere, irakurleoi ez zaigu aukerarik ematen Espainiako segurtasun indarren agente torturazailen gogoan murgiltzeko. Tortura

zeharo gordinki errepresentaturik dago, baina baita estatuaren erreflexu automatiko eta saihestezin modura ere. ETAREN indarkeria higuigarria da; tortura, ordea, *naturala*. Alde bateko indarkeria gaitzestea eta bestekoa naturalizatzea, noski, gatazka politikoa ukatzeko beste modu bat baino ez da. Azkenik, **Patria**-ren argumentua ardazten duen leitmotiv nagusia aipatu behar da, alegia, etakideei egindako exijentzia biktimei barkamena eska diezaieten. Exijentzia hori ez da mugatzen eremu literarioa: aspaldian integratu da Espainiako estatuaren aparatu judizial eta politikoak ETAKO presoei jarritako baldintzen artera berauek hobekuntzarik erdietsi nahi badute beren kartzelaldietan. Ahots gutxi altxatu dira politikoaren ordena batetik eta erlijioso edo sakratuarena bestetik hain itxu-ragabeki nahastu dituen diskurtso horren aurrean. Baina barkamena eta justizia ez dagozkio giza ekintza eta ulermenaren arlo berari. Biak nahastea, **Patriak** egin bezala, jukutria da, gaizki egindakoak alde bakar bati dagozkiola iradokitzeko modua, hau da, gatazka politikoa ukatzeko beste modu bat, berriro ere.

Halaxe nahi du Espainiak *kontakizunaren borroka* irabazi, hau da, Euskal Herrian benetako gatazka politikorik egon ez dela denoi ere onarrazita. Horixe da Espainiak Euskal Herriko gatazkaren gainean zabaldu nahi duen oroimena. Baina ehun milaka euskal herritarrentzat gatazka egon, egon da; eta badago, egon, argi eta garbi. Ehun milaka horientzat gatazkaren gaineko espainiar interpretazioa okerra bezain zitala da. Ehun milaka horiek beraien interpretazioari eutsiko diote eta interpretazio hori gorpuzten duen literatura sortzen jarraituko dute, egiazkoagoa, justuagoa eta demokratikoagoa delakoan. Literatura egongo da. Baita gatazka ere.

Gorka Mercero Alzugarai
Irakaslea





Ondorioen garrantzia

Jokin Muñozek, beharbada euskaraz idatzitako literaturan gatazkak izan dituen ondorioak hobekien eta zorrotzen islatu dituen idazleak, zera aitortu zuen elkarrizketa batean, gaixo zegoen gure gizartea zenbait basakeria gure egunerokotasunaren zati bezala onartzera iritsi zela. “Denok dakigu zertaz ari naizen: gutunak, pankarta mehatxagarriak, ETaren aldeko biba eta oihuak, hiltzen jarrai zezaten, eta abar... Ez zegoen gurean indarkeriak eragiten zuen minaren kontzientzia gehiegi. Gertaeren protagonistak *besteak* zirelako. *Besteak* edo *etsaiak*”.

Zorritzarrez, “etsaiak-gutarrak” dialektikaren zurrunbilan denbora gehiegi murgilduta eta are lokaztuta egon gara, zapaltzaile eta zapalduen erretolikan ainguratuta, epikaren edo iraultzaren estetikatik elikatzen, gatazkak eragiten zituen giza ondorioetan begirada eta luma doi-doi edo partzialki finkatuta. Esango nuke bestea ulertzeko bokazio gutxi erakutsi duela gure literaturak, eta, duela zenbait hamarkada, Gabriel Arestik “gizonaren dignidadea” beste ezereen gainetik jarri bazuen ere, azken hamarkadotan gurean nagusi izan dena ideologizazioa izan dela, lubakietako literatura, alboetara begiratzen ez zuena eta begiratzen uzten ez zuena. ETaren jardunak marra luzeegi bat ezartzen zuen, mundua bitan erdibitzen zuena, eta garai batean euskal sortzaileen artean zeuden konplizitate eta zubiak hausten joan ziren. Hala ere, ez da ahaztu behar hainbat idazlek bizi izan duen isiltasun behartua, baita bazterketa ere. Folio asko zuri eta tekla asko sakatu gabe geratu dira beldurraren eta mehatxuaren eraginez. Bitxiki, orain badirudi mundu guztia zegoela ETaren aurka, baita ezker abertzalearen baitan ere. Harkaitz Canok *Twisten* zioen moduan, “pentsatu baina esaten ez diren gauzak”. Literaturaren dagokio ere denboran gehiegi luzatu den isiltasun horren arrazoiak disezkonatzea.

1970etik 2000ra, gatazka jorratzen zuten lanetan, aktibistak ziren protagonistak, haien barne-ahotsak, poliziaren errepresioa, kartzela, indarkeria legitimatzaera edo haren erabilera neurri batean auzitan jartzera zetozen lanak (batez ere lehenak)... ETak eragindako biktimak ez ziren ia inondik ere agertzen, ez ziren literatura gai. “Besteak” ziren. Eta “gutarrak” omen zirenak, aldiz, militantzia leialaren geruzaz bernizatuta agertzen ziren gehienetan, heroi edo martiri bakar gisa. Zorionez, pixkana zabaltzen joan zen gure begirada eta ikuskera, batez ere Anjel Lertxundi edota Jokin Muñoz bezalako idazleen eskutik (*Zorion perfektua* edo *Bizia lo*, kasu). Apurka-apurka, indarkeriak eragindako mina gure eztabaiden erdigune bihurtzen hasi da, baita literaturarena ere. Harkaitz Canoren *Twistek* indarkeriari ideologizazioari

gabe begiratzeko modu poetiko eta hunkigarria ekarri zigun. Zalduaren eta Eider Rodriguezen zenbait ipuinetan ere azaldu zaizkigu min horren erpinak. Gatazkari esplizituki heldu dioten liburuez ari naiz, baina ezin ditugu alde batera utzi “mozorro” edo metafora baten pean argitara emandako zenbait lan. Adibidez, gurean bizi izandako minaren geografia ezagun bat topa dezakegu neke handirik gabe Lertxundiren beraren *Otto Petten* edota Felipe Juaristiren *Airezko emakumeak*-en. Koka-gune eta garai ezberdinak zeharkatzen dituzten nobelak izan arren, ezin dira bakarrik ulertu atzerrira egindako bidaia bat bezala. Guri buruz ere ari dira. Min isil eta astun horri buruz.

Herri baten ohorea heroietan ez eta lekukoetan datzala zioen Erri de Lucak *Soldaduren krimena* liburuan. Lekuko horiek hitz egiteko prest egon behar dute, galderei erantzuteko prest, baita deserosoei ere: zergatik luzatu da gurea horrenbeste? Zer behar zegoen horretarako? Zergatik omen zeuden hainbeste traidore?. Gauzak azkarregi ahaztu daitezke bestela, edo isiltasunean itzali eta berriro errepikatu handik urte gutxira. Gerra zibilaren ondotik, gerran borrokatu zutenetako asko isiltasunean hondoratu ziren. Minak jota zeuden. Ez zuten beren esperientziaren izugarrikeria kontatu nahi. Isiltasun hori gero eta pisu-5upoptsuagoa egin zen, gero eta sakonagoa, gero eta berunezkoagoa. Neurri handi batean, isiltasun behartu bat zen, diktadurak ezarritakoa. Svetlana Alexievitx idazleak *homo sovieticus*ari eskainitako saiakeran kontatzen duenez, sukaldeak oso garrantzitsuak izan ziren orduko Sobietar Batasunean. Han aitortzen zioten elkarri kalean aitor ezin zitekeena. Txoko horretan esaten zuten benetan pentsatzen zutena. Geure ardura da isiltasuna eta ahantzura ez nagusitzea, gure kontakizunaren koska guztiak argipean jartzea. Gaizki eginaren salaketa sukaldara ez mugatzea. Hildakoei zein biktimei gizatasuna ematea. Hor dago etorkizuneko literaturaren erronka.

Literaturaz eta etikaz ari bagara, konpromiso bati buruz ari gara, literaturak ez alderdi batekin edo bestearekin, baizik eta minarekin hartzen duena. Orrialde asko idatzi dira Estatuaren gerra zikinaz, torturez, sakabanaketaz eta atxiloketa bidegabeez, eta idatzi beharrekoak ziren (eta dira oraindik), noski, baina, arestian esan bezala, apenas idatzi den orrialderik ETako biktimei edo biktima horien ingurumariari zein mehatxatuei buruz. “Besteei” buruz. Esperantza dut datozen urteotan osatzen joango garea hutsune hori.

Aritz Gorrotxategi Mujika
Idazlea

